



Ula Iruretagoiena Busturia - @ulissima5
Arkitektoa

Mapak eta poesia

Mapez eta mapekin ari da Iñigo Astiz bere azken lanean, «Analfabetoa» izenekoa (Susa, 2019); munda, errealitatea eta aktualitatea ulertu nahian. Entzun dut poeta esaten poesia bide paregabea dela ulertzen ez dituen gauzez mintzatzeko, eta, horregatik, gaineratu du, prosan baino egiatiago dira hitzak poesian, baina ez argiago.


Europa Mendebaldeko maparik zaharrena du hizketagai poema batean; bertan dio haitzulo garaiko lurraldearen mapa eta marraketan, leku bat deskribatzearekin batera bizitza nolakoa zen azaldu nahi zutela gure arbasoek. Oro har, poema liburuak orainaldiaren lurraldea hartzen du hizketagai, poesiak maparen funtzioa betetzen duelarik edo poesiak mapa bat –edo gehiago– marrazten duelarik. Maparen linea eta irudien testualizazio ariketa bat da, mapak ohiko argibide funtzioa galduz: mapa ez da “zu hemen zaude” ziurtasuna eskaintzen dizun euskarria izango eta mapak ez du helmuga batera

iristeko biderik laburrena erakutsiko. Arkitekturaren eta filosofiaren nahasduraren toki ez jakin horretatik, poesia bide ez-jarraitua, erritmo geldoan eta praktikotasunik gabeko lokarrietan aritzeko proposamena da beti.

Ezinezkoa egin zait arkitekturarekin lotura saihestea, mapa edo lurraldearen irudikapena hain denez arkitekturarako gaia. Maparen poetikotasuna gutxitan izaten da eztaba-dagai, funtzionaltasunaren atzamarretan galtzen direlako mapak. Baina poesiaren antzera, mapa errealitatearen begirada baten emaitza da, benetakotasunetik urruti dagoena. Bizi garen testuinguruaren esentzia zirriboratu, gerturatu, korapilatu nahi dituzte biek. Ariketa espekulati- boak dira errealitatea abiapuntu eta helduleku dutenak, berorren ulerpe- nerako saiakera edo ahalegin gisa har- tu behar direnak, konplexutasun han- diko gaien azalpen partzialak. Poesian hitzak aukeratzen dira; mapan, ele- mentu grafikoak. Eta paperean itsa- tsitako hitzek zein lineek errealitatea-

ren transformazioarekin amets egi- ten dute.

Leku batek milioika mapa ditu, zen- batezinak dira. Eta leku baten erreali- tateaz jabetzeko mapa bat baino gehiago behar dira, existitzen ez di- ren errealitateenak ere bai. Zer pentsa eman dit mapez ari den “Helbiderik gabeko lekuak” izenburuko Astizen poemak, zeinak dioen badirela lekuak koordinadarik ezagutzen ez dutenak, baina, izendatzeko gaitasun hutsaga- tik, izan badirela. Norbaiten ahotan entzundako lekuak dira horiek, seku- la bisitatu gabekoak baina gure uler- menean existitzen direnak, “aho-bela- rri” interakzioan. Errealitatearekiko fidel- tasuna galdu eta norbanakoak testuinguruaz irudikatu duen ideia maparen material bilakatzean, erre- alitatearekin zeharkatzen diren oroi- tzapenak eta irudimenaren mapak er- diesten dira. Baliteke poesiak zein mapak ustez ezaguna zaigunaren errebelaziorako giltza izateko, erreali- tatetik aldendu, fikzioan eta memo- rian nahasi eta buelta egin behar iza- tea, betiere, ulertzeko zaila den horretaz aritzeko. •



Ilustrazioa: ULA IRURETAGOIENA BUSTURIA